

Arrasate

P R E S S

1999ko
abenduak 24
477. zenb.



IKUSPEGIA: KARMELE PEREZ • EUREN IKUSPUNTUTIK: TXUS GOIKOETXEA
KIROL GAIA: IREKIERA ARRAKASTATSUA • KULTURA ELKARRIZKETA: KOLDO AMESTOY



Plastikozko ontziak



Latak



brickak



...zure esku dago

"Bueltaka - Bueltaka Birziklatuz"

Datozen egunetan honelako 127 edukiontzi jarriko ditugu Debagoienan zehar. Zure laguntzarekin ingurugiroa zaintzeko bide horretan urrats handia emango dugu.

Eta horrela, lehengai eta energia gutxiago beharko dugu, kutsadura eta zaborrak ere gutxitu egingo dira, eta jakina, zabortegeiak ere denbora luzegorako izango ditugu.



Gutxitu hondakinak, berriz erabili eta birzikla itzazu

Guztion mesedetan izango da

Urte berri on?

Milurteko aldaketak mundua hankaz gora jarri duela dirudi. Makina bat kanpaina, zalaparta eta eztabaida dakar eskutik zorioneko mende berriak.

Kanpaina eta zalapartak komunikabideen eskutik jaso ditugu. Batetik, horrelako efemeride paregabeak modu berezi edo orijinalen igaro eta ospakizun erraldoiak egin beharra. Horren azpian, jakina, interes ekonomiko itzelak. Bestetik, ikara, izua, mundua bukatuko ote zaigun beldurra. Nostradamus-en iragarpenetik hasi eta 2000 efektuan

bukatuta, horko hondamendia, horko gorde eta babestu beharra... Lotuta egongo ote dira lehenaren iragarpena eta bigarrenak eragin dezakeen indar nuklearren aktibatzea?



Karmele Perez

Milurteko aldaketak hamaika iragarpen, ilusio eta ikara piztu ditu.

Auskalo! Kontua da bateko eta besteko berriak jaso ditugula azken aldian, bi muturretakoak, alegia.

Eztabaida, berriz, gero eta handiagoa da 2000 urtera iristen goazen neurrian. Izan ere, ez dira ados jartzen mende edo milurtekoaren aldaketa 2000n ala 2001ean gertatuko ote den. Aditu batzuen iritziz nahaste horrek eta informazio

kanpaina egokia ez egiteak efemeride hori bi aldiz ospatzera eramango omen gaitu, aditu gehienek esaten baitute aldaketa hori 2001ean izango dela.

Ezin ukatu, neurgailu horiek

konbentzionalak edo arbitrarioak direla. Data zehatzik ez jakin arren, berpizkunde garaian inguruan hasi omen zen egutegia bateratzeko saioa. Gaur egun mendebaldeko kultura ados dago neurgailu horren irizpideekin, Kristoren arabera

egutegiarekin, alegia: munduaren bilakaera neurtzeko horren menara ezarri dute, ezinbestean, herrien arteko komunikabide, merkataritza eta legeak bateratu beharra dela eta. Baina zein iritzi izango ote dute honi guztiari buruz musulmanek haien 1420 urtea iritsiko denean? Edo maiek 5119 urtean? Eta hebraitarrek 5760an? Edo budistek 2544an eta koptoek 1716an? Interesgarria izango da haien ikuspegia, ziur.

Milurteko aldaketak hamaika iragarpen, ilusio eta ikara piztu ditu. Batek daki nola etorriko den, adeitsu ala liskarti, lasai ala zoritzarreko. Gauza xume bat espero eta eska dezaket soilik: urte berriko lehen eguna urte zaharreko azkena bezain lasaia, ahal bada alai eta batez ere arrunta izan dadila, urteroko berezitasunaren barruan urtero bezain arrunta, alegia. Izan ere, egunerokotasun arruntaz gozatzea baita neronek behintzat ikusten dudana erronka, egun bakoitza, urteko azkena, lehena ala hogeigarrena, ukitu bereziaz janzte eta horretaz gozaten ikastea. Hala bedi guztiontzat. Urte berri on!

"Espainiako eta Frantziako gobernuztat ikatza ekarri dut; kilo bat ikatz bakoitzarentzat".

Olentzero

%16

haziko da datorren urteko aurrekontua

Gipuzkoako Foru Aldundiak uste baino diru gehiago bildu duela eta, udalek ere hazkundera izango dute. Arrasaten hazkundera %16koa izango da. Aaspaldiko handiena. Aurrekontuak datorren urtarriaren amaieran onartuko dira, hilabete atzerago.

ITURRI ONETIK

"Gerra" Poloniara

Eugenio Otxoa "Gerra", Leintz-Gatzagako alkatea, Poloniara omen doa, Fagorrek Wrozanet izeneko hirian duen fabrikara lanera. Fagorrek orain pare bat hilabete erosi zuen fabrika hura, Europako Ekialdeko merkatura zabalatzeko asmoarekin.

Wrozaneten sukaldeak egiten ditu Fagorrek. Fabrikazio zuzendari gisa joango litzateke Eugenio hara.

Hamabi urte pasatxo —lau udal hauteskunde irabazi baititu— Leintz-Gatzagako alkate izan eta gero, utzi egin beharko du alkatetza hara joanez gero. Hala ere, zinegotzi lanetan segituko luke, gatzagarrek ez dute nahi-eta "Gerra"ren eskarmentua galdu. Nor izango da, bada, hurrengo alkatea? Badirudi boletoko gehien Joserra Agirreurretak edo Dorleta Elkorobarutiak dituztela.



ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oteakora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89 E-mail: arrasatepress@euskalnet.net Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Jose Aranzabal. Kazetariak: Marijo Deagracias, Ubane Madera, Maider Osa. Publizitatea: Nerea Zallo. Arantza Lagunilla, Arantza Arroabe. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). Administrazioa: Maite Urriolabeitia (Tel.: 943 71 23 90). Diseinua: Maddi Trubuelo. Asteburuetako berriemak: Monika Belastegi. Kolaboratzaileak: Mikel Inzar, Udaleko Gazteria Saila, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. Banaketa arduraduna: Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.400. Logo-Gordailua: 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeo konzentratua. Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuaren egiten da.

Azala: Maddi Trubuelo.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

- Ostirala, 24**
• Amezua, Santa Marina
- Larunbata, 25**
• Zabala, Zarugalde
- Igandea, 26**
• Ruiz, Maalako Errabala
- Astelehena, 27**
• Morales, San Andres
- Asteartea, 28**
• Azkoaga, Ferrerías
- Asteazkena, 29**
• Azkoaga, Iturriotz
- Osteguna, 30**
• Korkuera, Musakola
- Ostirala, 31**
• Irizar, Erguin

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igalatoria 943 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11
- Gurutze Gorria**
Bergara 943 76 55 76
- DYA**
Antzuola 943 78 71 57
- Anbulatorioak**
Arrasate (Larrialdiak) 943 03 53 00
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 53 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
• Fax zenbakia 943 03 05 14
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 45 51 16
- Anbulantziak**
Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44
- Udaltzaingoa**
Oñati 943 78 04 11
Bergara 943 77 91 06
Arrasate 943 79 14 39
Aretxabaleta 943 79 10 52
Eskoriatza 943 71 44 07
- Ertzaintza**
Arrasate 943 79 71 99
- Suhiltzaileak**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088
- Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44
943 79 76 78
- Garraioak**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**
Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57
- Monterron liburategia**
Monterron 943 77 01 05
- Irratia**
Arrasate Irratia 943 79 58 77

GOROLDIOA BILTZEARI EZ

Aurten, aurreko urteetan bezalaxe, Gabonak gerturazten diren neurrian, ikusten dugu merkatari batzuek goroldioa erabiltzen dutela euren erakustokiak apaintzeko. Nahiz eta gure herriko jende askok ingurugiroa babestearen garrantziaz sensibilizaturik egon, eta Gabonetako jaiotzan goroldioa erabiltzeari utzi dion, oraindik badira pertsona batzuk gure ingurunearekiko inolako errespeturik ez dutenak.

Goroldioa, edo hobeto esanda goroldioak, —hitz honekin hainbat landare mota izendatzen baitugu—, bakoitza bere ezaugarriekin, garrantzi handiko izakiak dira. Zorionez gure ingurunean, batez ere mendietan, goroldio ugari aurki ditzakegu, baina jasotzerakoan sortzen dugun kaltea itzulezina da. Fruitu batzuk jasotzean, lore batzuk moztean, perretxikoak batzean edo adar batzuk apurtzean, landarearen zati batean eragiten dugu, baina berriro birsortzeko ahalmena izaten du; beraz, sorturiko kaltea ez da hain latza. Baina zuhaitz bat botatzen badugu, betiko suntsitzen dugu.

Goroldioa batzean gauza bera gertatzen da; ehundaka urte iraun duen kolonizazio prozesu geldo batekin amaitzen dugu. Era berean, kalteak sor ditzakegu paisajearen txoko aberats batean.

Goroldioak landare talde oso zaharrak dira, gutxienez

orain dela 280 milioi urtekoak, eta bilakaera handirik jasan ez dutenak. Ekosistema askotan funtzio garrantzitsuak betetzen dituzte. Gainazal gogorretan bizi daitezke, harkaitz edo zuhaitzen azaletan, esate baterako. Beste landareentzako latzak diren inguruneak kolonizatzen dituzte eta horrela bilakaera ekologikoan oso egiteko garrantzitsua jokatzeko.

Beraien izaera aitzindariari esker, zuhaitz, zuhaiska edo belarrek behar duten lurra sortuaz doaz. Baso baten ekosisteman oso garrantzitsuak dira: ur ugari gordetzen dute eta zuhaitzen haziak ernaltzeko edo basoko animalia ugariarentzako gordeleku apartak dira. Hainbat toki estaltzen dituzte, hala nola lurra, haitza, zutik eta lurtean etzanda dauden enborrak, zuhaitzetaiko adarrak, putzu eta lakuak, horma-zuloak... Garrantzi berezia hartzen dute gure mendi gailurretan, ingurune latzak kolonizatuz.

Goroldioen garrantziaz oharturik, Europako Habitat Arteztarauak (92/43/CEE) Arteztaraua, habitat eta baso-flora eta baso-fauna babesteari buruzkoa) Gipuzkoan ditugun hamar goroldio espezie babesten ditu. Lerro hauekin agerian jarri nahi izan dugu goroldioen garrantzia eta mendizaleei eta orokorrean gizarteari eskatu nahi diegu errespetatzeko eta mesedez ez bilatzeko.

Besaide Mendi Taldea

EROETXEAK EZ DIRA OSPITALAK

Eroetxe batetik idazten dizuet, betiere izua izkutatzen eta itxaropena askatasunean, hots, hemendik irten-go naizen esperantzaz.

Erranen dut gehiegi sakondu gabe, jendeak ez baitu izango oso gai gogokoa agian, esango dut apal, baina irmoki eroetxeetan psikiatrien aginduz torturatu egiten dela luze, medizina nazkanteekin. Bezeroak ziurtatzeko? Auskalo zergatik, hobe ez jakitea arrazoitxo. Psikiatrak terroristak dira. Izugarria, ezta? Zoragarria ez, bederen.

Psikiatra eta medizina horientatik aske geratzea da ehun metroko soka tenkatuan ibiltzea bezala, kristo bat egin da zaudeneko salakuntza sakelean gordeta duzula, gorriak eta bi igaro behar sentikaitz bukatzen duzula, bukatzekotan.

Bukatzeo, eta piska bat gaia tematsuki aldatuz, esango dut errepide eta komunikabide gehiagorekin herri zahar horrek zentzuzkoa duela modernizatzea eta autode-terminazioa izatea, berezko-tasunaren indartzetik nazioartean malgu higitzeko.

Jon Otero Uribarren

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M
MEMESA
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Zer esanahi dute Gabonek zuretzat?

Gabonak kontsumismoaren jai bihurtzen ari dira, aspaldian.



Luis Espinosa
(76 urte)
Erretiratua

Beti bezala, ospatu egiten ditugu, baina zaharrak gara dagoeneko.



Luis Gutierrez
(33 urte)
Langilea

Ezer ere ez. Ohituraz ospatzen dugu, familiarekin elkartu eta besterik barik, lanean oporrak hartu eta horrela.



Maria Teresa Agreda
(39 urte)
Langilea

Familiarekin ospatzeko jaia da, bereziki kide guztiak baldin bagaude.



Jone Lasagabaster
(27 urte)
Langilea

Egia esateko, ez dute esanahi berezirik.



Concha Velasco
(83 urte)
Erretiratua

Penarik ez izanez gero, oso jai polita da. Sendi osoa elkartu eta goxo-goxo egoten gara.



Fernando Amor
(28 urte)
Langilea

Pilotalekuan ibili naizenez lanean, aurten oporrak etorriko zaizkit Gabonetan.



Itsaso Beitia
(13 urte)
Ikaslea

Familiarekin egon, lagunekin ondo pasatu eta opariak egin eta jasotzeko egunak dira niretzat.



Alan Ruiz
(14 urte)
Ikaslea

Elurra, Olentzero, jaiak, alaitasuna... hori guztia.

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

ORTO + LAGUN
ORTOPEDIA
Ea Olentzerok zer ekartzen dizuen.
Ondo pasau Gabonetan!!
Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiralean
5etatik 8etara.
Tel.: 943 79 26 99

24

ostirala

■ **ZINEA**

Atsedeen eguna.

■ **OLENTZEROREN JAITSIERA**

Olentzero menditik jaitsiko da Zaldibarrera. 18:00. Olentzerorei agurra herriko plazan, Mufil dantza eta Herri dantzarekin batera. Herriko Plazan, 19:30.

Aretxabaletan ere izango da Olentzero, Kirol Etxetik plazaraino joango da. Gero, Ortzadar taldeak jaiotza bizia antolatuko du Herriko plazan. 18:30.

■ **ERAKUSKETAK**

Zabalik dago oraindik L. Javier Arrietaren margo erakusketa, urtarrilaren 9a arte. Harresi Aretoan, 18:00. Larunbat eta jaiegunetan, 12:00 eta 18:00.

Antton Olariagaren erakusketa, Monterron Kultura Etxean, ordutegi berbera.

■ **GOIKOBALUREN EMANALDIA**

Kantaldia eskainiko du Goikobalu abesbatzak. Iturbide Egoitza, 17:00.

■ **BINGOA**

Bingo berezia Iturbide Egoitzan. 18:00.

25

larunbata

■ **ZINEA**

Caprichos del destino 17:00, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

■ **ESKULAN ERAKUSKETA**

Zabalik dihardu Aretxabaletako Udaleko Kultura Sailak antolatu duen eskulan erakusketa. Abenduaren 31 arte. Udaletxe zaharrean. 18:00.

26

igandea

■ **ZINEA**

Caprichos del destino, 17:00, 19:30, eta 22:00, Alai zineman.

■ **ROCKA ESKORIATZAN**

Euskal presoekiko elkartasunean, EGAS gazte asanbladak rock kontzertua antolatu du Eskoriatzan. Sarrera 300 pezeta. Pilotalekuan, 22:30.

■ **DOANEKO KONTZERTUA**

Basque Country taldeak doaneko ekitaldia eskainiko du. Jam Aretoan, 22:00.

27

astelehena

■ **ZINEA**

Caprichos del destino, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

■ **TUNA**

Gasteizko tuna batek musika saioa eskainiko du. Iturbide Egoitzan. 17:00.

■ **KONTZERTUA**

Saioa eta Izaro, Iosune eta Edurne, Aitzol Mujika, Tanatos, Latex eta Los Padrinos taldeek kontzertua eskainiko dute. Sarrera 1.000 pezeta. Jasotzen den dirua Bergarako nesken futbol taldeentzat izango da. Jam Aretoa, 22:00.

■ **POXPOLIN PARK**

Jokoak eta lantegiak antolatu dituzte Aretxabaletako udalak, Loramendi elkarteak eta Ortzadar taldeak, 12 urtera arteko ume eta gaztetxoentzat. Gaur hasi eta 30a arte egongo da irekita. Aretxabaletako kiroletxean.

■ **NEGU GAZTEA**

Txangoa, magia emanaldia eta lantegiak, 12 eta 16 urte bitarteko gazteentzat. Urtarrilaren 5a arte izango dira. Aretxabaletako Kultura Etxean.

28

asteartea

■ **ZINEA**

Caprichos del destino, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

■ **IPUIN KONTAKETA**

Koldo Amestoyk ipuin kontaketa eskainiko du, 8 urtetik gorakoentzat. 18:00, Monterrongo Haur Liburutegian.

Errege Kabalgata

11 urtetik gorako bazara, eta Errege Kabalgatan parte hartu gura baduzu, zoaz San Viator Handira, abenduaren 29an eta urtarrilaren 4an, arratsaldeko 19:00etan.

Sagardotegia

ITURRIETA

Arriaga auzoa
Tel.: 945 44 55 85
ARAMAIO

Ipek
Denda

Iturriotz, 19
(Herriko plaza) ARRASATE

30 osteguna

■ ZINEA

Caprichos del destino, Alai zineman, 19:00 eta 21:30.

■ MERIENDA

Arrasateko nagusientzako merienda berezia. Ondoren, Iturbideko Abesbatzaren emanaldia, eta bukatzeko, bingoa. Iturbide Egoitza, 16:00.

■ KONTZERTUA

Kepa Junkera eta *Anari*-ren kontzertua. Prezio arrunta 1.000 pezetakoa da, baina 26 urtetik beherakoentzat 750 pezetako prezio berezia jarri da. Jam Aretoa, 22:30.

■ ZABOR BILKETA GABONETAN

San Andres, Erguin, Erdigunea, Uribarri, Lora-mendi, Garagartza eta Gesalibar auzoetan Gabon egunean eta Gabon Zahar egunean zabor bilketa arratsaldeko 14:00etan hasiko da, 22:00etan barik. Zaborrak 13:00-14:00 artean atera beharko dira, Debagoieneko Mankomunitateak aditzera eman duenez.

■ UR ETA ZABOR ZERGA

Arrasateko Udalak jakitera eman duenez, 1999ko 3. hiru-hilabeteko ur eta zabor zergaren ordainagiriak borondatez ordantzeko epea urtarrilaren 28a arte egongo da zabalik. Epe hori pasatu ondoren, ordaindu ez dutenek %20ko igoera izango dute.

■ AMODIOZKO GUTUNA

Berrigarak antolatutako Amodiozko Gutunen VIII. lehiaketa abian da. 1985ean edo lehenago jaiotako edonork har dezake parte. Argibide gehiago Jardun Elkartean, Bergaran. Lanak urtarrilaren 10a baino lehen aurkeztu beharko dira.

■ UNICEF IDAZLAN LEHIAKETA

Abendu osoan zehar aurkeztu ahal izango dira Unicef batzordeak antolatuen "Zu bezalako hau-

rrak" lehiaketarako idazlanak. 8 eta 11 urte bitarteko haur guztiek har dezakete parte. Argibideak: 943 27 11 61 telefonora dei egin dezakezue.

■ NORTASUN TXARTELAK

Ondorengo zenbakien arteko NAak dituztenek berritzera joan beharko dute, abenduaren 28an, asteartez. Kontuan hartu zenbakiok: 941tik 1090ra.

■ XIII. ARRASATE LEHIAKETAK

AED elkarteak, Arrasateko Udalaren laguntzarekin, zenbait lehiaketa antolatu ditu: komikigintza, Leintz eta Ugaren bailareta-ko euskaran egindako magnetofoi-grabaketak, irrati erreportajea, ipuina, poesia eta bertso-paperak. Otsailaren 11rarte dago epea irekita. Arrasateko AED elkartean aurkeztu beharko dira lanak.

■ LAN POLTSA

Arrasateko Udalak aldi baterako zerbitzuak betetzeko udaltzainen lan poltza eratu nahi du. Epea abenduaren 30erarte.

■ EMAKUMEAK KONTALARI

Emakumeei zuzendutako lehiaketa antolatu da. Kontakizun laburrak egin beharko dira, euskaraz zein gaztelaniaz, gehienez sei orrialdeko luzeraz. Urtarrilaren 12rarte.

■ PORTUGALETEKO KOMIKI LEHIAKETA

"Portugalete Uri Urena" XIV. Komiki Lehiaketa parte hartzeko epea zabalik dago. Lau orrialdeko luzerakoak eta formato bertikalekoak behar dute izan lanek. Urtarrilaren 21era arte.

■ OLERKI LEHIAKETA

"Pasaia Hiria" XII. Olerki Lehiaketa, 15 urtetik gorakoentzat, 200 bertsoko luzera gehienez. Urtarrilaren 21era arte.

Inoiz ez dugu

jakingo zenbat

lagundu digun

aurrerapen

honek.



ga jende bila



NAROKI
LIBURUDENDA

Era guztietako opariak
Gabon
zoriontsuak!

NAROKI
BITXITEGIA

Oparirik
distiratsuenak!

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

USTEAK USTE

Agur.
Ni ere banoa

Laster bi urte beteko dira zutabe hau bigarrenoz idazten hasi nintzela. Dino-sauro baten itzulera zela esan zidan orduan batek.

Egia da itzulerak inoiz ez direla errazak izaten, baina zortea izan dut, hala ere. Zorte handia. Bi urte hauetan aldaketa handiak izan ditugu eta gogotik egin dugu lan. Aurrera begira ere, aldakuntzak are eta handiagoak izan litezke.

Arrasate Pressek sekulako lan taldea du: gaztea eta ona. Urre gorria balio duten emakumeak. Horietako bat, Marijo Deogracias antzuolarra, hasiko da datorren astetik aurrera zutabe hau idazten. Arretaz irakur iezaiozue.

Joan aurretik eskerrak eman nahi dizkizuet sarri edo aldian behin zutabe hau irakurri duzuenoi. Nirekin bat etorri zaretenoi eta haserretu zaituztedanoi. Modu batean edo bestean, zuek eman didazue aurrera egiteko kemena. Eta barkatu gaizki esanak, dinosaurook ere huts egiten dugu eta.

Maite zaituztet.

Joxe Aranzabal



Ekin diezaiogun garaipenari

* Txus Goikoetxea

Ekin ezker abertzalearen baitan sorturiko erakunde berriak, Arrasaten talde bat lanean jarri duela eta, beroni buruzko aurkezpen txiki bat egitea da gaurkoan helburua.

Urte luzez militantzian ari den jendea eta jende berria ere kokatzen da Ekinen, modu horretan bere helburuetako bat lortzen saiatzen delarik, hau da: gizarteko ahalik eta esparru gehienetan lan egitea, gainera modu honetan esperientzia eta gogoeta berriak uztartuz.

Ekin erakundeak independentzia eta sozialismoa ditu azken helburu, eta horretan ditu jarriak bere ahalmen guztiak. Independentzia herri bezala etorkizunean eratu nahi den European eta aldi berean, munduan gure erabakiak hartu ahal izan eta nortasuna bermatzeko.

Sozialismoa, berriz, gizartearen ondo izatea, elkartasuna, berdintasuna... eta antzeko baloreak bermatuz, nahiz

eta zailtasunak dezenteak izango diren gaur egungo neoliberalismoa eta globalizazio kapitalistaren barruan.

Helburu hauek lortzea Euskal Herriaren bizi iraupenerako ezinbesteko dela deritzo Ekinen, eta bere hausnarketak eta egoeraren irakurketa politikoa egin eta ezker abertzaleko beste erakundeekin alderatzea da talde honen eginbeharretako bat.

Bestalde, giza mugimenduen garrantziaz jabeturik, eta "alderdien garaia" dela esaten dutenekin ados ez dagoenez, giza mugimendu haue-

tan bere militanteak harrotuz, hauei lagundu eta dinamizatzeari du lan egiteko bere beste modu bat.

Momentu honetan beharrezkoa da Euskal Herriaren herritar guztien mugimendua indartzea. Herritarren, euskaldun guztien, garaia da.

Erakunde hau euskalduna dugu eta hizkuntza arlo estrategiko bat da. Hizkuntzarik gabe Euskal Herriak etorkizunik ez duela diogu.

Nazio mailan eraturiko erakundea dugu, Euskal Herri osoan baitago errotua, bere-isei probintzietan inongo mugarik eta desitxuraketarik gabe lurraldetasunari ere bere biziko garrantzia ematen zaionalarik, herriarik gabe ez baitago nortasunik.

Gure betebeharra lerro hauen bitartez euskaldun, abertzale eta sozialista sentitzen den orori agur bero bat luzatzea litzateke, lanerako deia eginez.



* Ekin Taldeko Kidea

MARKO
Pando
ERROTULOAK
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabilioia)
Tel. / Faxe: 943 79 79 70

MARKO-JARTZEAK
ALDEDI
Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84

astea bi hitzetan

■ **Elurra berriro ere**

Astearte gauean Eskandinaviako haizeek elurra eta kazkabarra ekarri zituzten berriro ere gurera. Aurten bigarren aldiz bisitatu gaitu, beraz, dama zuriak eta mendian paraje polita bai, baina errepedeetan istripu bat edo beste utzi digu.

■ **NBEK Frantzia kondenatu du**

Nazio Batuen Erakundeak Frantziako Estatua kondenatu egin du Josu Arkauz preso mondragoetarra legez kanpo Espainiaratu zuelako. Izan ere, 1997an, Nazio Batuetako Torturen Aurkako Batzordeak Arkauz ez Espainiaratzea eskatu zion Frantziari,

Espainian torturatu egingo zutelakoan. Baina Frantziak Espainiako poliziaren esku utzi zuen mondragoetarra. Espainiaratu zutenean oso osasun egoera kaskarrean zegoen, 34 egun baitzeraman ezer jan barik. Hala ere, hiru egun egin zituen erabat bakartuta, Guardia Zibila-ren kuartel batean.

■ **Jai giroa Iturbiden**

Iturbide Egoitzako adinekoek badute zer egin Gabon hauetan. Pasa den asteazkenean ekin zieten Gabonetako ospakizunei musika emaldi eta txokolatada batekin eta datorren urtarrilaren 5a arte makina bat ekintza izango dute, tartean, tuna

baten saioa, bingo bereziak eta opariak, jakina.

■ **SFXen batzar orokorra**

San Frantzisko Xabier Ikastolak 1.278 lagun bildu zituen ostegunean egin zuen batzar orokorrean. Bi gai nabarmendu ziren gai zerrendan: ikastolako estatutuen moldaketa, eta 1999-2000. ikasturterako gestio plana.

Lehenengo puntuari dagokionez, ikastolak derri-gorrezko du estatutuak aldatzea, Herri Onurako kooperatiba bihurtu nahi baita.

Bigarren puntuari, buruz, berriz, datorren ikasturterako gestiotik gai bat nabarmentzen da: Arizmendi proiektua.

■ **Kukubel Mondragoen**

Kukubiltxo taldea Arrasaten izan zen larunbatean "Kukubel" lana antzezten.

Antzezlanaren ospea tarteko, guraso askok eraman zituzten seme-alabak antzerkira eta guztiak ere ondo asko pasatu zuten sorgin kontuen artean. Eguraldi eskasaren ondorioz, Herriko Plazan barik, Gazteluondon izan zen antzezpina.



Garaia egitasmoa da, Arrasatetik MCCk bultzatu duena, euskalerrigintzari begira, aspaldion jaso dudana berririk onenetakoa.

(...) Horrelako egitasmo bat zer-nola burutzen denak, munduaren gaurko baldintza berrietan herri izaten jarraitzeko gauza garen erabaki lezake. Adibidez, saregune horren hizkuntzak eta baloreak zeintzuk izango diren ez da arazo teknologiko soila, goiburuek ere bai baitute eraginik arazo horiek konpontzerakoan.

Ingelesa, euskara, gaztelania, frantsesa... zer-nolako mailatan eta erara erabiliko dira, bai ikerkuntzan eta bai bezeroekiko harremanetan?

(...) Gure herrigintzaren etorkizuna erabakiko duen guneetakoa izango da, ezbairik gabe, Garaia egitasmoa".

PAKO GARMENDIA

Euskaldunon Egunkaria
1999.12.19



URONDO
Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Portugaldarren aurkako salaketa atzera

Arrasateko Udalak Zalduspen bizi diren portugaldarren aurka jarrita zuen salaketa kentzea erabaki du

Aurreko agintealdian jarri zuen udalak bi familia portugaldarren aurkako salaketa, argindarra baimenik barik hartzen zutela eta. Anbulatorioaren ondoko kale argi batetik hartu zuten argindarra eta udalak, arriskutsua zela eta, salatu egin zituen. Astelehenean, ordean, Gobernu Batzordeak salaketa hori kentzea erabaki zuen.

Udaletik adierazi diguteenez, auziak aurrera egiten badu, herri akusazioaren erabakiz izango da. Dena dela, hori ez litzateke logikoa izango. Izan ere, salaketa jarri



Monika, Olinda eta Jose iazko udaberrian ateratako argazki batean.

duenak atzera egiten baldin badu, auzia ere bertan behera gelditu beharko litzateke.

Familia biak ijitoak dira,

Portugaldik etorri ziren eta bi urte eta erdi daramate ospitale ondoan karabanetan bizi-tzen.

Presoak Euskal Herriratzearen alde

Jende ugari bildu zen igandean Herriko Plazan euskal preso-en Euskal Herriratzea eskatzeko. Debagoienean preso-en alde lan egiten duten elkarte guztiek antolatu zuten kale agerraldia. Udaletxean baraualdia egiten ari ziren ESK sindikatuko kideek ere baraualdia amaitu eta agerraldiari lotu zitzaizkion.

Bi panakarta ikus zitezkeen agerraldian. Bata, bailarako herrietako kideek eramanakoa eta bestea, Aretxabaleta, Eskoriatza, Elgeta, Gatzaga eta beste udal batzuetako herri agintariak zeramaten.

Edukiontzi horiak iritsi dira herrira

Dagoeneko iritsi dira herrira edukiontzi horiak. Brik ontziak, plastikozkoak eta ontzi metalikoak biltzekoak dira. Horieta jasoko diren zaborrak Legazpiko Banaketa eta Sailkatze Plantara eramango dira han birziklatzeko.

Edukiontzi berri hauek besteen ondoan jarri dira, herri-tarroi erraztasunak emateko. Hala ere, hauek erabiltzeko komeni da ondorengo ohar hauek kontuan hartzea: ontziak ez bota poltsetan sartuta; brikak tolestuta bota, leku gutxiago har dezaten; ontziak hutsik bota; eta azkenik, ontziei tapoiak edo estalkiak kendu bota aurretik.

Gai honekin lotuta, behin baino gehiagotan entzun izan ditugu herri honetan zaborren inguruko kexuak. Gauza bera gertatu da, noski, papera eta kartoi-ekin. Azken bi hauei dago-kienz, baina, mankomunitateak jakinarazi du edukiontzi urdinen inguruan izan diren

hutsuneak eta akatsak, kontratatuta dagoen enpresaren barne arazoen eragina izan direla. Hau ikusita, papera eta kartoia batzeko zerbitzu hau beste enpresa bati ematea erabaki du mankomunitateak. Enpresa berria datorren urtar-rilaren 3an hasiko da lanean. Bitartean, orain dagoen zerbitzua indartzeko asmoa dago. Era berean, arazoa konpondu bitartean, herritarren laguntza eskatzen du bailarako erakundeak, kartoia behar bezala sar ditzagun.



Ehune berriro irabazle



Aurtengo erakusleihoko lehia- ketako lehenengo saria Ehune dendak eraman du, bigarrena Altuna drogeriak eta hirugarrena, berriz, Lasagabaster jantzi dendak irabazi du.

Mertxe Plazaola, Ehune dendako saltzailearen esanetan, "ez genuen espero. Denda guztiek merezi dute saria. Hala ere, lan handia egin dugu guztion artean erakusleihoa apain-

tzen eta saria lortzeak poz handia ematen du, honekin jarraitzeko"

Apainketan erabilitako irudimena, orijinaltasuna, itxura ona, Santamas edo Gabonetako jaiak ukitzea eta mezu baliagarriak igortzea da udalak kontuan hartu duena sariak banatzeko orduan. Lehiaketa hau udalak antolatzen du eta hirugarren saria Ibai Arte elkar-teak ematen du.

Gabon Zaharreko Kotiloia

Emaiozu ongi etorria 2000.ari
HOTEL MONDRAGONen ospatuz.



16.900 pta.
lagun bakoitzeko

* Logelako gehigarria:
Pertsona bakoitzeko
3.500 pta.
logela bikoitzean.

Menu berezia

Orotariko Iberikoak
"Bi Saltsa" Zainzuriak
Foie Terrina
Erromes Txirla Betea
Otarraintxoak Plantxan

Itsaski Zukua

Bizkaiko Itsasoko Legatz Gorenak

Solomotxo Sorta

Urte Amaierako Postre Berezia

Gabonetako Turroiak

Kafea

Etxeko Ardoa
Brut Nature Cava

Afaria,
kotiloia **edarien barra librearekin**
eta zuzeneko emanaldia.



denda berria!

Lasagabaster

G A Z T E M O D A

Zerkaosteta, 7 • ARRASATE • Tel.: 943 79 86 14



Goiena, aurrera mugarik barik

Goiena, Debagoieneko komunikazio zerbitzuak garatzeko sortu den egitasmoa, onarpen zabala jasotzen ari da.

Horren froga da astearte-an AEDren egoitzan egin zen sinatze ekitaldia. Deba Goieneko herri gehienetako euskara elkarteek adostasuna erakutsi zioten proiektuari.

Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza, Antzuola eta Elgetako euskara elkarteetako arduradunak izan ziren Goiena egitasmoa-



ren proiektua sinatzen. Proiektuak datorren urtean emango

ditu fruituak. Bitartean lanetan segituko dute elkarteek.

Igelaren iturria berriro herritarrentzat

Zerrajerako eraikin zaharraren ostean agertu den iturria berreskuratu egingo du Arrasateko Udalak.

Zerrajerako eraikin zaharra botatzen ari zirela, han ostean zegoen iturriarekin konturatu ziren langileak. Iturriotzeko iturria du izena, baina mondragoetar gehienok Igelaren iturria izenarekin ezagutzen dugu.

Euskal kultura Seberon salgai

Txatxilipurdi elkarteak antolatutako euskal liburu, disko eta bideo azoka Santamás bezperan zabaldu zen eta gaur iluntzean itxiko da. Bitarte eta Zabaltzen banatzaileek ekarri dute aurten go azokarako materiala eta Ikastolen Elkarteak jokoak. Bitxikeria moduan, Mondragoen argitaratutako CD-Rom bat ere izan da salgai. Ingurugiro lantegi bati buruzkoa da eta batez ere



ikastetxeetako irakasleentzat prestatu da.

Aparkalekuak herritarrentzat

Alde Zaharrean egiten ari diren lanen ondorioz udalak aparkalekuak gordeko ditu Laubideko udal parkinean garaje barik geratzen diren herritarrentzat.

Guztira, 20 bat aparkaleku gordeko dira. 11 lehenengo solairutik eta 9 behekotik. Hala ere, aparkaleku gehiago behar izan ez gero, lehenengo solairutik gehiago aterako lirarteke.

HISTORIA

Herriaren historiaren zati bat gordeko du udalak iturria berreskuratuz. Izan ere, Mondragoe 1260an sortu bazen, iturri hori askoz ere lehenagokoa da.

Iturriotz kaleari izena ematen dion iturria da, metal ura ematen duena.

Zerrajerak bere eraikinak egiteko lursail hori erosi zuenean, ordea, itxi egin zuen iturri bat eraikitzea agindu zuten Zerrajerako arduradunek. Kontzeziñoko iturria hain zuzen ere, 1942an eraiki zena.

X Bataioak, jaunartzeak, enpresa bazkariak eta lagunartekoak

X Karta eta menu berezien zerbitzua



DENBORALDIKO PLATERAK, GIRO ONENEAN

BASTER-ALDE

J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABALETA

Tel.: 943 79 24 58

LOS VAQUEROS

Zorionak eta urte berri on!

Zerkaosteta, 5
Tel.: 943 79 97 55

ITZULTZAILE LANETAN

AEDk antolatzen duen Jokin Zaitegi itzulpen laburren lehiaketako lanik onena Joseba Ossa arruarrak egin du, epai mahaiaren iritziz. Patxi Xabier Ibarzabal Arrasaten bizi den hernaniarrak, berriz, akzesita lortu zuen. Gaztelaniatik ezezik, ingelesetik, frantsesetik eta errumanieratik itzulitako lanak ere jaso ziren. Zorionak irabazleei!!!



EUSKALDUN PETO-PETO EGITEKO BIDEAN

AEDko Zahar-Berri egitasmokoak Durangoko Azokan izan ziren. Ikusten duzuen bezala, erosketa piloa egin ondoren, Erramun Martirikorena tartean harrapatu eta argazkia atera zuten elkarrekin. Euskaraz ikasi eta bizitzeaz gain, euskal giroko pertsonak ezagutzea ere komeni da eta...

JOKIN ZAITEGIK SARIA EMAN DIO...

Ines Leibar mondragoetarrari!!! Erantzun zuzenak asmatu zituen eta berak jasoko du "Euskal Herria eta bere herrialde historikoen kondaira" mapa eta liburua. AEDk antolatutako lehiaketa honetako erantzun zuzenak honakoak dira: Jokin Zaitegi Erdiko kalean jaio zen; 1950. urtean Guatemalan sortu zuen aldizkaria Euzko Gogoia izan zen; euskaratu zituen elkarriketak Platon filosofo handiarenak ziren. Zorionak, Ines!!!



BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tel.: 943 79 91 84

ARETXABAETA

BOLIÑETE

OILASKO ERRETEGIA
Bertan jateko edo eramateko.

Jai zoriontsuak izan

Zarugalde, 24 • ARRASATE • Tel.: 943 79 39 91

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 - 1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

ZILARREZKO EZTEIETAN, AUSTRALIAN EPELETAN



Jose Ignacio Garai eta Aurora Sanabria Australian daude astelehenez geroztik. Zilarrezko Ezteiak egin dituztela eta, ospatze aldera munduko beste punta hartara joanak dira. Gure gradu apurrak ahaztuta izango dituzte honezkero eta hango 30 graduak aprobetxatzen ibiliko dira. Ez da ospakizun txarra!!! Zorionak Gorkaren partetik, bikote!!!

HORRA, HORRA, GURE OLENTZERO!

Erguin Herri Eskolako umeak praketan kabitu ezinik zebiltzan astelehenean. Olentzero Udalatxetik behera zetorrela eta hantxe izan ziren eskolako sarreran txintxo-txintxo itxoiten, Olentzero ikusi eta euren eskariak egiteko. Hurrengo egunetan Mondragoeko beste lekuak bisitatu ditu gure Olentzerok.



IZENAK

Jabier Arrasate

Irakasle eibartarra unibertsitateetako euskal irakasleak biltzen dituen EIRE elkarteko idazkaria izango da. Oinarrizko Zientzien departamentuburua da, Mondragon Unibertsitatean.



Guillermo Irazoki

Berrikuntza Teknologiko-ko errektoreordea izango da Mondragon Unibertsitatean. Beran jaio zen orain 43 urte eta ingeniaria da ikasketaz. Hamazazpi urte egin ditu Ikerlanen; Adimen Artifizial sailko buru izan da.



Idoia Peñakoba

Idoia Peñakoba, 30 urteko arrasatearra MUko idazkari akademikoa izango da. Enpresa ikasketak ESTEn egin ostean, master bat egin zuen Pensilvanian. Saiolanen bi urtez aritu zen; LKS Aholkularitzan, berriz, lau urte egin ditu, Estrategia saillean.

ARRAKASTA GALANTA-CARMINA BURANAREKIN




Agertokia jendez gainezka izan bazen, Amaia Antzokia bera ere, lepo bete zen domekan Carmina Buranaren eraginez. Hainbeste lan eta buruko min eragin dituen opera honek pozak ere ematen dituela argi erakutsi zuen. Herri erdia lanean eta beste erdia ikusten egon zen igandean. Horrelako ikuskizunekin Mondragoeren izena eta izana salbu daude!!!



**Gabonetan
aldatu
zure orrazkera**

Kontzeziño, 4 behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 943 79 87 62



URTE LUZEZ ELKARREKIN

Nieves eta Jose Angel 1974. urteko azaroaren 23an ezkondu ziren; 25 urte, beraz, eta zilarrezko ezteiak ondorioz. Zorionak eta poz-pezik bizitzen jarraitu!!!



**EZ DIRA PROFESIONALAK,
BAINA EZ DIRA MAKALAK!!!**

Zuri eta urdin jantzi, ilaran zintzo-zintzo jarri eta entsegu batzuk egin ondoren, Arrasate Musikaleko neska-mutiko talde hau Amaia Antzoki-ko agertokira igo zen gurasoak liluratzeko prest.

Ederki asko abestu zuten, gainera. Datozen egunotan etxe askotan izango dute zer entzun!

Peque choll

AURREZTU %70 BERRIA BEZALAXE EROSIZ

Jantziak (0-16 urte) • Haurrentzako den dena • Haurdunaldirako jantziak • Mozorroak • Jostailuak • Oihalak • Liburuak • Kaseteak • Bideoak • Dekorazio osagarriak

Isasi kalea, 18 / EIBAR / Tel.: 943 20 03 10 **Interesatuko zaizu!**

Umeentzako gauzen

SALEROSKETA

Ez bota... Ez gorde... Ez oparitu...

SALDU!!

Olentzero II. lehiaketa

Olentzero etorri zaigu. Posta bidez behintzat. Txatxilipurdi, AED eta Ekin elkarte-en laguntzarekin, antolatu duen lehiaketa parte hartu duten haurrei esker, Olentzeroren postalekin zoriondu ahal izan ditu ARKOK Eguberriak.

Iaz gertatu zen bezala, partehartzea izugarria izan da. Arrasateko eskola guztietako eta Almen ikastolako 1.500 umek eta gaztetxok

helarazi dizkigute Olentzeroren marrazkiak. Hamabi urterainoko ikasleek hartu dute parte. Denetik jaso dugu: Olentzero etxean, etortzeko prest; edo etxeetarako bidean, poltsa opariz gainezka; edo herriko kaleetan zehar kantari. Baina adin bakoitzeko irabazle bat besterik ez zitekeen aukera. Txatxilipurdik aukeratu zituen marrazki irabazleak. Eta horiekin, postalak egin ditugu.

Olentzero joan zaigu mendira lanera...

Pentsatuko zenuten akaso noizbait, ea zergatik etorzen den Olentzero Euskal Herriko haurrei opariak banatzera, beste toki batzuetara Erregeak joaten badira. Ba hara hemen honen zergatia. Bazen garai bat, Ekialdeko Hiru Erregeek mundu guztia zeharkatzen zutena erregaluak banatzen. Baina hainbeste urte etengabe bidaian,

errege gaixoak neka-neka eginda zeuden. Horrela bada, Eguberrian opariak banatzeko gauza zen norbait ager zedin deia egin zuten.

Eta hara non agertu zen gure Olentzero ikazkina. Erregeekin bildu eta honela mintzatu zitzaion: "Ekialdeko Errege horiek, ni Euskal Herriatik nator eta hango umeak ondo ezagutzen ditut. Beraz, ni joan naiteke ume euskaldunei opariak ematera. Eta noizbait oso lanpetuta banabil, eskatuko dizuet laguntza". Hiru erregeek pozez onartu zuten Olentzeroren eskaintza, eta hitzarmena ospatzeko elkarrekin afaltzera joan ziren. Handik aurrera, Olentzero etortzen da Euskal Herriko etxeetara.



EMAKUMEON TXOKOA

Elkarkidetasunaren txokoa

Etxeko lanak eta ardurak gizonezko eta emakumezkoen artean trukatzeko tailerrak

GIZONEZKOENTZAT:

- Sukaldaritza
- Garbitasuna
- Joskintza
- Plantxa
- Etxeko ekologia

EMAKUMEZKOENTZAT:

- Elektrizitatea
- Iturgintza
- Brikolajea
- Pintura
- Etxeko ekologia

Noiz:

Urtarriletik apirilera

Ordutegia:

Arratsaldeko 18:00-tik 20:00-tara.

Matrikula:

2.000 pta.

Izena emateko epea:

urtarrilak 20, osteguna. Arrasateko udaleko emakume sailean 943 79 41 39 telefonon.




ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■



Ainhoa Guridi • 3 urte



Marina Garmendia • 4 urte



Felipe Zabala • 2 urte



Hona hemen saritutako artista gazteak, eta euren marrazkiak. Arrasate Pressera etorri ziren, Olentzerok hemen utzitako opari bana jasotzera. Zorionak denei!



Jone Sagasta dugu aurtengo lehiaketako irabazlea. Berak egin du azaleko argazkia. Hamaika urte ditu eta San Frantzisko Xabier ikastolan ari da. Bost urterekin ere beste marrazki lehiaketa bat irabazi zuen. Akaso etorkizunean marrazkilari famatua izango da. Oraingoz Arrasate Pressen behintzet agertu da. Zorionak!



Olentzero marrazki lehiaketak



Kepa Grevilla • 12 urte



Mikel del Rio • 11 urte



Jon Pagi •






Julen Altuna • 5 urte



Markel Salnz • 6 urte



Jon Altube • 7 urte



etko irabazleak

Ibai Zubizarreta • 8 urte



Jon Aizola • 10 urte



Janire Arazuri • 9 urte



Uarkape Udal Pilotalekua bete-bete egin zen

Jendez gainezka eta urduritasunez blai inauguratu zuten Santamas bezperan Uarkape Udal Pilotalekua. Jon Anduezak eta Itxaro Zubillagak zuzendutako ekitaldiari Musika Bandak eman zion hasiera, "Arrasateko ereserkiarekin". Baina unerik hunkigarriena herriko pilotariei egingako omenaldia izan zen. Arrostaiz dantza taldekoek arkuekin zubi bat egin eta banan-banan pilotalekuko kantxara irten ziren. 28 pilotari handiri egin zitzaion omenaldia eta Arrasateko Pilota Taldeko pilotariak oroigarri bana eman zieten, "Uarkape pilotalekuaren omenaldian, esker onez".

OHOREZKO SAKEA

Xabier Zubizarreta, Arrasate-



Herriko pilotariei egin zitzaion omenaldia izan zen unerik hunkigarriena.

ko alkateak ohorezko saka barik, bi sake egin zituen. Lehenengoaren ostean konforme ez, eta jendearen eskariz, beste bat ere egin zuen. Bigarrena, ordea, gora joan zen, baina ez zen hirugarren aldiz saiatu.

PILOTA JAIALDIA

Hiru artekari aritu ziren Aspe enpresak antolatuta, partidetako apustuak bideratzen. Berraondo-Auskin eta Galarza V-Sukiaren arteko norgehiagoka 18 eta 15 amaitu zen lehenengoan alde, apus-

tuak betez. Estelarrean, Titin III-Zezeagak 11n laga zituzten Goñi II-Elkoro, oso erraz.

Auxkinek adierazi zigunez, pilotalekua asko gustatu zitzaion eta partida gogorra izan zen. Zoruari buruz, "errebotean pilotak gelditu egiten dira" aitortu zigun, baina pilotalekua berria delako gertatzen dela, azaldu zigun ondoren.

PRESOEN ALDE

Estelarraren hasieran, Goñi II eta Elkorok lehenengo tantoa egin zutenean, bost lagun "Presoak gose greban, prozesuan parte hartzeko eskubidea" zioen pankartarekin kantxa ratu ziren eta partida geldiarazi minutu batez. "Euskal presoak Euskal Herrira" oihuak entzun izan ziren pilotaleku berrian.

HIZKUNTZEN MUNDUA



Informa zaitez orain !

Zorionak eta urte berri on

- ▶ Hizkuntza eta maila guztiak.
- ▶ Ordutegi malguak.
- ▶ Mediateka zure esku dohainik.
- ▶ Haur, gazte eta helduentzat.
- ▶ Multimedia sistemak.



AHIZKE S. COOP
Avda. de Alava, 4 - 20500 ARRASATE (GIPIUZKOA)
Tel.: 943 71 20 55 Faxa: 943 71 21 81
E-mail: secretaria@cim-idiomas.com
http://www.cim-idiomas.com
Olakua, 14 - 20560 OÑATI (GIPIUZKOA)
Tel.: 943 71 60 00

Florida, 8A - 01005 VITORIA-GASTEIZ (ARABA)
Tel.: 945 15 01 55 Faxa: 945 15 01 56
E-mail: gasteizbaibay@cim-idiomas.com
Zubieta, 26 - 20007 DONOSTIA (GIPIUZKOA)
Tel.: 639 71 98 58
E-mail: secretaria@cim-idiomas.com
http://www.cim-idiomas.com



Santamas herri krosa Aretxabaletara



Ramon Jausoro atxabaltarrak eskuratu zuen Santamas herri krosaren 21. txapela. Bigarren eta hirugarren izan ziren herrikoak: Jabier Mentxaka eta Joseba Larrinaga, hurrenez hurren.

Ez zen egunik onena izan 6 km.ko lasterketa egiteko; euria egin zuen eta egun osoan zehar. Dena dela, 43 lagun animatu ziren parte hartzera eta jende askok irten zuen kalera korrikalariak txalotzera.

13-14 URTE

- 1- Ibai Irastorza.....3:08
- 2- Josu Saiz.....3:08
- 3- Jon Lizarralde.....3:11

11-12 URTE

- 1- Lander Errasti2:13
- 2- Ander Nafarrate.....2:14
- 3- Igor Jurado.....2:15

10 URTE

- 1- Markel Blanco1:25
- 2- Ander Garcia1:30
- 3- Oxel Zabalo.....1:34

9 URTE

- 1- Odei Uranga.....1:35

- 2- Julen Sanz1:36
- 3- Anton Zabaleta.....1:45

8 URTE

- 1- Beñat Etxabe0:35
- 2- Ibai Bolinaga.....0:36
- 3- Julen Eraña.....0:37

7 URTE

- 1- Maialen Uranga.....0:42:24
- 2- Andoni Otxandiano..0:43:23
- 3- Aitor Azkarate.....0:44:35

NAGUSIAK

- 1- Ramon Jausoro19:36
- 2- Jabier Mentxaka20:15
- 3- Joseba Larrinaga20:21

Korrikalariek banakako denboraren araberako saria jaso bazuten ere, taldekako puntuaketa ere izan zen, kua-drila krosa ere izaten baitzen.

Taldeka, "Kontrol Mental" izan zen lehena. Bigarre-

na "Herritarrok" eta hirugarrena "A las once en la conce". Emakumezkoetan Alaitz Perez de Arenaza izan zen garaile, herri mailako krosetan askotan aritzen den emakumea.

San Andres txapelkun, Santamasetan

Arrasateko Xake taldea izan zen garaile Taldekako XI. Santamas Xake txapelketan. Corazon de Encina egoitzan San Andres taldeaz gain, beste sei talde aritu ziren lehiari: Ermua, Laredo, Abadiño, Tolosa, Ibarra eta Eibar.

Torneo hau egin den hamaika urtetan Arrasateko lehenengo aldiz lortu du irabaztea. Bost minutuko partida azkarretako ligaska jokatu zuten; Laredo eta Arrasateko taldeak nor baino nor aritu ziren eta azkenean herriko laukoteak irabazi zuen. Ermuarrak izan ziren bigarren.



San Andres nagusi.

DENBORALDIA

Bestalde, Gipuzkoako ligan 2,5 eta 1,5 irabazi zuten arrasatearrek Gros C-ren aurka.

Euskal Herriko Karate txapelkunak

Saioa Karate eskolako lau karatekek Euskal Herriko Karate txapelketan, Espainiako txapelketarako sailkatzea lortu zuten. Patricia Morales kadete mailako txapelketa izan zen eta Iker Zabarte, Maikel Talledo eta Sandra Alvarezek hirugarren toki lortu zuten juniorretan.

Laurek Espainiako txapelketarako auresailkapenean parte hartuko dute datorren igandean. Gasteizen jokatu da eta han egiten

duzenaren arabera, urtarrilaren 15ean Madrilera joango dira Euskal Herriko selekzioarekin.

PARTE HARTZE BIKAINA

Iñaki Muñoz, Saioako taldeko entrenatzaileak adierazi digunez, "Bergaran jokatu zen txapelketan egon ziren zortzi karateketatik lau sailkatu ziren arren, zortziek oso txapelketa ona egin zuten eta lortutako emaitzarekin gustura gaude".



**Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis**

Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72



Elizondo
kafetegia



Garagartza auzoa • ARRASATE • TEL.: 943 79 15 99

OLENTZERO

“Magia erabiltzen duta

Denok dakizuen moduan, Olentzero astelehenean jaitsi zen Udalatxetik Mondragoera. Herriko eskoletan zehar ibili da egunotan ume-
txoak bisitatzen eta gaur, 24an, kalera aterako da, urtero moduan, opariak banatzera. Guk atsedena dugu elkarriketatxo bat egiteko.

**– Olentzero, ez zara asper-
tzen edo nekutzen urtero-
urtero etortzeaz?**

– Etortzeko desiatzen egoten naiz beti. Sekula ez naiz asperetzen. Azkenengo egunetan lan handia hartzen dut, baina ez naiz sekula aspertuko.

– Urtean zehar non egoten zara?

– Mendian bizi naiz. Baina zein menditan bizi naizen ezin dut esan, bestela egunero-egunero bisita izango nuke.

– Zer egiten duzu?

– Lan asko. Ikatza prestatu, adibidez. Jende askok merezi du ikatza eta urtean zehar prestatzen joaten naiz. Hainbat jende ez da ondo portatzen. Umeak bai, beste batzuk dira formalak ez direnak.

– Norekin bizi zara? Emazterik baduzu?

– Ez dut emazterik, baina laguntxo batzuk baditut. Niri laguntzen ibiltzen dira, elkarrekin pipa erre, lan egin... Sekula ez naiz bakarrik egoten.

– Nola konpontzen zara opari guztiak lortu eta egun berean Euskal Herriko hainbeste lekutan banatzeko?

– Lan horretan ere laguntza handia izaten dut. Ni ez naiz bakarrik ibiltzen opariak banatzen, laguntzaileak ditut horretarako. Guztiak koordinatzen ibiltzen naiz ni.

Opariak lortzeko, berriz, nire magia erabiltzen dut. Ezin

dizuet gehiago esan, bestela Erregeek eta besteek ere jakin-
go lukete nola banatzen dudana... Bakoitzak bere modua izaten du.

– Noiz hasten zara 24rako prestaketa lanak egiten?

– Ba, Maritxu Kajoi bukatu eta gero segituan Gabonetarako lanean hasten naiz.

– Batzuek esaten dute gezurretakoa zarela, moztutako norbait...

– Hori ez da egia. Guztiok ikusten nauzue Gabonetan kalean, eta argi dago ez naizela moztutako inor.


Nola mozturro daiteke nire tripa handia? Edozeinek ez du horrelakorik, neuk bakarrik... Bene-benetakoa gara, bai tripa eta baita neu ere.

– Jende guztiak erregimena egiten du gaur egun; ez duzu sekula pentsatu tripa handi hori txikitzea?

– Ez, ni pozik bizi naiz nire gorputzarekin. Gainera, dudan koipeak berotasuna ematen dit urtean zehar.

Gabonetan apurtxo bat pasatu egi-

“Maritxu Kajoi bukatu eta gero hasten naiz Gabonetarako lanean”



opariak lortzeko”

ten naiz eta urtarrilean igartzen dut, baina egin beharra dut. Etxe guztietan beti ipintzen didate jateko zerbait, balkoietan denetik izaten dut. Hori guztia janda, urte osorako indarra hartzen dut.

- Nola ezagutu zenituen Txoronpio eta Txoronpia? Mondragoekoak dira?

- Behin mendian gora agertu ziren eta nirekin topo egin zuten. Lagun egin ginen eta nire laguntzaile izaten hasi ziren. Geroztik oso harreman ona dugu.

Badakizue, 24an elkartzen

gara. Goizean Txoronpio eta Txoronpia ateratzen dira niretzako gutunak jasotzera eta arratsaldean eurekin elkartzen naiz.

Mondragoekoak dira, bai, jakina.

- Konpetentziarekin ondo konpontzen zara?

- Ondo konpontzen gara, bai, baina ia ez dugu elkar ikusten. 24an Bizar Zuri eta neu bakarrik ibiltzen gara eta urtarrilean, berri, Erregeak.

Denok gauza politak banatzen ditugu. Desberdintasun bakarra dago: eurak monarki-

koak dira eta ni ez.

- Ikatza norentzat?

- Espainia eta Frantziako gobernuentzat, bakoitzarentzat kilo bat ikatz, adibidez. Zerrenda luzea da, jende askok merezi du-eta ikatza, baina hasiz gero ez genuke sekula bukatuko.

- Zuk zeuk, zer eskatzen duzu?

- Olentzerok berarentzat ez du ezer eskatzen; nahikoa izaten dut bidaltzen didaten esku-titz polit piloarekin.

Arrasatear batzuentzat,

berri, kanpoan dituzten seni-tartekoak etxera etortzea. Hori xe eskatzen dut.

- Arrasaterentzat zer ekarriko duzu aurten?

- Alaitasuna, poza, normalizazioa... Gauza on guztiak Mondragoentzat.

- Bukatzeko, ezer esan nahi diezu irakurleei?


- Bai, gutun pilo bidaltzeko. Guztiak irakurtzen ditut eta beti izaten da zerbait denontzat, benetan. Bai neska-mutikoentzat eta baita pertsona nagusientzat ere. ■

• ARTEA •
 Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
 Laminak, Izpiluak,
 Margoak
 Ferrerías, 11 Tel.: 943 - 77 10 95
 ARRASATE


 **KONTRATAK**
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK
 Meatzerreka, 5 bis
 Tel.: 943 77 09 92
 Faxe: 943 - 79 78 14
 ARRASATE
 San Lorenzo, 39 etxabea
 Tel.: 943 78 21 82
 OÑATI

King's
Ile apaindegia
 Zeureganatu
 estilo berria!
 Zarugalde, 23, behea
 Tel: 943 79 84 88
 ARRASATE





Zorionak eta urte berri on!
Diego Valor
Ile apaindegia
 San Lorenzo, 2, behea (Gizonezkoak) Tel: 943 76 58 08
 Zubieta, 38, behea (Binakoa eta estetika zerbitzua) Tel: 943 76 37 70
 BERGARA


LAN ESKAINTZA
UARKAPE UDAL PILOTALEKUA
 AUKEA Kirol Erakundeak
 ondorengo zerbitzua eskaintzen du:
Uarkape Udal Pilotalekuaren
tabernaren kontzesioa
 Informazioa eta dokumentazioa non eskuratu:
 Musakolako kiroldegian. Tel.: 943 77 16 77
 Eskaintzak aurkezteko epea: 2000. urteko urtarrilaren 12a



ARRASATEKO UDALA



AUKEA



2000 efektua

2000. urteko efektuaren zain!
Horrela dago Zaldibarko txapelketa. Eta gainera gogo biziz itxaroten dutela dirudi. Begira jokalarien keinua. A zer nolako ahalegina jartzen duten.



dela horrela izaten. Joan den astean esaterako, partida bat ia bertan behera gelditu zen eta talde bat kalean. Izan ere, Orlando Piratas berandu iritsi zen hitzordura. Larunbatean eguerdiko 14:00etan zuen neurketa Saukelu Scream taldearen aurka eta bederatzita minutu beranduago iritsi ziren taldekideak. Dena dela, minutu bategatik libratu ziren: Hamar minutuko atzerapena onartzen du antolakuntzak eta 60 segundu tarteko, txapelketan segitzen dute.

OPORRAK ZALDIBARREN

Gabonetako oporrak hartu dituzte dagoeneko Zaldibarko txapelketan ari diren taldeek. Milurtekoko azken jardunaldia jokatu zen joan den asteburuan eta orain, 2000. urtera arte itxaron beharko dute. Dena dela, ez da askorik falta, beraz, lasai, zaleok!

Urtarrilaren 8an ekingo

diote txapelketari. Zazpigarren jardunaldia izango da ordukoa.

ILUNPETAN JOKATZEN

Bonba Taldiek aditzera eman digunez, Iturripen jokatzeko diren partidak direla eta, arazoak izan zituzten joan den asteburuan. Dirudenez, argi barik gelditu ziren eta arra-

tsaldeko 17:00etako partida, Alai Gozokiak eta EPEH taldeen artekoa, ilunpetan jokatu behar izan zuten. Hori dela eta, argiteria lehenago pizteko eskatu diote udalari.

ATZERAPENA ZALDIBARREN

Puntualtasuna bertutea ei da. Baina badirudi Zaldibarren ez

Dena dela, izan zen jokatu gabeko partidarik ere. Dribling eta Aldibiren artekoa. Dirudenez, antolakuntzakoak ez ziren iritsi Zaldibarrera eta partida bertan behera gelditu zen. Igande goizean ez omen zuten modurik izan ohetik jaikitzeko. Hau da hau, antolaketa! Talde bat ia txapelketatik kanporatu eta eurak berandu iritsi!

TAKOLO AUTOAK

Araba etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia
Tel.: 943 79 05 86 ARRASATE

Opel Astra diesel berria

2.0 DTI 16V. 100 zaldi

Jostailuak



Gabonik gutziziatuenak



EROSKI

2000

Jostailuen erosketarako
aholkularitza



Barceló Bidaiak

| | |
|--|----------|
| LA PERLA TALASSOTERAPIA - Asteburuko tratamendua | 7.400.- |
| ASTURIASen NEKAZAL ETXEA - Asteburua (2 gau / alojamentua)..... | 20.000.- |
| ARNEDILLOko BAINUETXEA - Relax asteburua (2 gau / pentsio osoa) | 31.030.- |
| | |
| TENERIFE - Ah. Lavaggi 3* (7 gau / aloj.+gosaria) | 48.950.- |
| LANZAROTE - H. La Perla 3* (7 gau / aloj.+gosaria) | 63.150.- |

Eta gainera, negu honetarako




elurretarako aukerarik zabalena.

**Gabon Zoragarri eta urte berri bikain bat guztiontzat.
Zorionak!!!**

MAALAKO ERRABALA, 33 - Tel.: 943 79 70 11 / Faxe 943 79 63 63

Telefono mugikorra gauza arrunta da dagoeneko



**Airtel
Formula
Pack
Eskaintza**

**20.000 pta
deietarako.**

**Airtel
hemen:**

AIRTEL ARRASATE
Maalako Errabala, 33
20500 Arrasate
Tel.: 943 79 50 32

**Zorionak eta
urte berri on!**


Mugitzen zarelako

*16%ko B.E.Z. barne. Eskaintza 2000ko urtarrilaren 16a arte.

Emaitzak

A taldea

Atxanta el Retorno 2 - DA Iriztu 19
 Goma 2 6- AC Surkos 4
 Bar Nuevo 1 - You Know 14
 Komando Alpargat 5 - Betraye 4
 Orlando Pir.s 5 - Sauk Scream 3
 AT Lokala 6 - Fraguel Gol 5
 Kobate DKB 7 - Xhasss Ugarte 2
 Giraldilla Con. 2 - Irati STS 12
 Sokoakoak5 - Ume Zikinak 5
 Kanpazar 3 - Etxe Mobil 0
 Totem 1 - Lontxo Taberna 0

B taldea

Borrock & Roll 6 - Makanudos 4
 Garaje Oscar 4 - Koka Juniors 3
 Etxerat Tab. 10 - KK Jauri. 5
 Aurrera Bolie 1 - AKTA 3
 Kamasutra 5 - Branka Tab. 4
 Alai Gozokiak 1 - EPEH 3
 Dribling - Aldibi (atzeratua)
 Potroak 4 - Leya 4
 Makai 8 - Txeyenex 5
 Serengeti 6 - Sas T 5
 IKP 3 - Timoftol 3

Sailkapenak

| A taldea | PARTIDAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|-------------------|----------|---------|-------|-------|-------|-------|-------|
| | Jokat. | Irabaz. | Berd. | Gald. | Aldi. | Aurk. | Guzt. |
| AT Lokala | 6 | 6 | 0 | 0 | 32 | 13 | 12 |
| K. Alpargat | 6 | 5 | 1 | 0 | 28 | 18 | 11 |
| Ume zikinak | 6 | 4 | 2 | 0 | 49 | 25 | 10 |
| You Know | 5 | 4 | 0 | 1 | 38 | 11 | 10 |
| Orlando | 6 | 4 | 2 | 0 | 34 | 19 | 10 |
| Kanpazar Harrobia | 6 | 4 | 1 | 1 | 29 | 11 | 9 |
| Irati STS | 6 | 4 | 0 | 2 | 46 | 20 | 8 |
| Kobate DKB | 6 | 3 | 0 | 2 | 31 | 24 | 8 |
| AC Surkos | 6 | 2 | 1 | 3 | 40 | 34 | 7 |
| Sau. Scream | 6 | 3 | 0 | 3 | 34 | 16 | 6 |
| Goma 2 | 6 | 3 | 0 | 3 | 32 | 26 | 6 |
| Totem | 6 | 3 | 0 | 3 | 18 | 28 | 6 |
| DA Iriztu | 6 | 3 | 1 | 2 | 34 | 16 | 5 |
| Sokoakoak | 6 | 2 | 1 | 3 | 23 | 24 | 5 |
| Xhasss Ugar. | 5 | 2 | 0 | 3 | 34 | 36 | 4 |
| Betraye | 6 | 2 | 0 | 4 | 29 | 27 | 4 |
| Fraguel Gol | 6 | 2 | 0 | 4 | 24 | 31 | 4 |
| Etxe Mobil | 6 | 1 | 0 | 5 | 19 | 34 | 2 |
| Atxanta el Ret. | 6 | 0 | 1 | 5 | 10 | 59 | 1 |
| Bar Nuevo | 6 | 0 | 0 | 6 | 12 | 66 | 0 |
| Giraldilla Con. | 6 | 0 | 0 | 6 | 6 | 68 | 0 |
| Lontxo Tab. | 6 | 0 | 0 | 6 | 0 | 6 | 0 |

| B taldea | PARTIDAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|------------------|----------|---------|-------|-------|-------|-------|-------|
| | Jokat. | Irabaz. | Berd. | Gald. | Aldi. | Aurk. | Guzt. |
| KJ Basati | 6 | 5 | 0 | 1 | 42 | 26 | 10 |
| Dribling | 5 | 5 | 0 | 0 | 31 | 7 | 10 |
| Etxerat Tab. | 6 | 4 | 1 | 1 | 35 | 18 | 9 |
| IKP | 6 | 4 | 1 | 1 | 30 | 18 | 9 |
| KK Jauriaritzari | 6 | 4 | 0 | 2 | 29 | 21 | 8 |
| Timoftol SMD | 6 | 3 | 2 | 1 | 31 | 18 | 8 |
| Borrock & Roll | 6 | 3 | 2 | 1 | 30 | 17 | 8 |
| Serengeti | 6 | 4 | 0 | 2 | 20 | 23 | 8 |
| Kamasutra | 6 | 3 | 1 | 2 | 28 | 19 | 7 |
| EPEH | 6 | 3 | 0 | 3 | 31 | 28 | 6 |
| Garaje Oscar | 6 | 2 | 2 | 2 | 25 | 18 | 6 |
| Txeyenex | 6 | 3 | 0 | 3 | 23 | 30 | 6 |
| Branka Taberna | 6 | 2 | 1 | 3 | 34 | 29 | 5 |
| Aldibi | 5 | 2 | 1 | 2 | 23 | 30 | 5 |
| Leya | 6 | 2 | 1 | 3 | 21 | 27 | 5 |
| AKTA | 6 | 2 | 1 | 3 | 18 | 14 | 5 |
| Aurrera Bolie | 6 | 1 | 2 | 3 | 16 | 22 | 4 |
| Potroak | 6 | 1 | 2 | 3 | 16 | 25 | 4 |
| Alai Gozokiak | 6 | 1 | 1 | 4 | 16 | 16 | 3 |
| Makai | 6 | 1 | 0 | 5 | 27 | 57 | 2 |
| Makanudos | 6 | 0 | 1 | 5 | 17 | 51 | 1 |
| Sas T | 6 | 0 | 1 | 5 | 15 | 35 | 1 |

ARRASATE KIROLAK
 Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

Aitor Lopez Rekarte Sarria

Bonba Taldiek gaur bertan ekin dio zarpina-ko futbol txapelketari. Gaurtik eta abenduaren 30a arte jokatuko da. Hirugarren eta lau-

garren tokiak eta finala abenduaren 31n jokatuko dira. Zortzi taldek eman dute izena 3. txapelketa honetan.

ABENDUAK 27, ASTELEHENA

A zelaia

10:30 Euskaldunak - Leze Txiki
 11:30 Kimetz Taberna - Koba Haundi

B Zelaia

10:30 Bizkarrak - Joma A
 11:30 Joma B - Mapfre

ABENDUAK 28, ASTEARTEA

A zelaia

10:30 Kimetz Taberna - Leze Txiki
 11:30 Euskaldunak - Koba Haundi

B zelaia

10:30 Joma A - Joma B
 11:30 Bizkorrak - Mapfre

ABENDUAK 30, OSTEAGUNA

Final erdiak

10:30 1-A / 2-B
 11:30 1-B / 2-A


ABENDUAK 31, OSTIRALA

10:30 3. eta 4. tokiak
 11:30 finala



Arte lehiaketa Gure Leku tabernan

Gure Leku tabernak arte plastikoen lehiaketa antolatu du. Nahi duten guztiek hartu ahal izango dute parte lehiaketan. Gaia, teknika eta materialen erabilera parte hartzaileen esku izango da. Epaimahaia arte eta diseinu arloan adituak, bi antolatzailek eta tabernara hurre-ratzen diren ikusleek osatuko



dute. Gure Lekun kutxa bat izango da eta hantxe sartuko

dute beren botoa eta euren artean Guggenheim Bilbao museora joateko bi sarrera ere zotz egingo dira.

APIRILEAN ERABAKIA

Lehiaketara aurkeztutako lanen artean lehen hautaketa bat egingo da eta Gure Leku tabernan erakutsiko dira ira-

bazlea aukeratu arte.

Epaimahaikideek 2000. eko apirilaren 5ean jakinaraziko dute erabakia, 19:30ean Gure Leku tabernan egingo den luntxean. Erabaki hori aldaezina izango da. Irabazleak 125.000 pezeta poltsikoratuko ditu, baina saria hutsik ere gera daiteke.

Kultura Gabonetan Aretxabaletan

Abenduaren 31 bitartean eskulan erakusketa izango da Aretxabaletako udaletxe zahar-rean. Kultura sailak antolatu du erakusketa, eta 18:00etatik 20:30ak bitartean izango da zabalik.

Abenduaren 27tik 30era bitartean, Poxpolin Park hau-

rrantzako jolastokia egongo da kirol etxean. Hamabi urte bitarteko haurrek hainbat joko eta tailer izango dituzte aukeraren. Besteak beste, ludoteka, ipuinen txokoa, ile apaindegia, txapa tailerra, malabarrak... Jolastoki hau ere Udaleko Kultura sailak antolatu du, Lora-

mendi euskara elkarteko ludotekaren eta Ortzadar taldearen laguntzarekin.

GAZTEENTZAT

Abenduaren 27tik urtarrilaren 5era Negu Gaztea izenarekin 12-16 urte bitarteko gazteek hainbat irteera, magia ema-

naldia eta lantegiak izango dituzte.

Gabon jaiei bukaera emateko, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen *Plisti plausta* antzez-lana eskainiko dute urtarrilaren 15ean. 17:00. Sarrera, 300 pta. Lehiatilan, berriz, 500 pezetaren truke.

Dantzan hobeto artajorran baino

Arama eta Lazkaoko Joseba Apaolazak eta Irati Imazek irabazi zuten dantza sueltoko zazpigarren txapelketa. Hamalau bikotek hartu zuten parte eta Gipuzkoatik etorri ziren guztiak: Lazkao, Asteasu, Elgeta, Bergara, Donostia, Azpeitia, Ibaratik...

Bikote bakoitzak fandango eta arin-arin bana dantzan egin behar izan zuen, eta irabazleek 15.000 pezeta, txapela, lepoko zapia eta



Hamalau bikotek dantzatu zuten.

Arrasateko plaka irabazi zituzten. Mikel Mujika eta Nagore Narbarte asteasuar-rrak gelditu ziren bigarren eta 13.000 pezetaren eta egurrezko kutxaren jabe egin ziren.

Hirugarren tokian Elgetako Andoni Elorza eta Hiart Oiarbide gelditu ziren, eta 11.000 pezeta eta egurrezko kutxa bana irabazi zituzten. Txarto ez.

Zorionak guztioi eta segi dantzan!



Bonet Ardotegia

Rioja ardoak • Duero ardoak • Priorat ardoak

50 marka desberdinetik gora

Cognac, Armagnac...

Olarte 16 behea • Tel.: 943 79 58 23

KOLDO AMESTOY (IPUIN KONTALARIA)

“Helduentzako ipuinak kontatzen ditut batez ere”

Donapaleu ondoan sortu zen Koldo Amestoy, orain dela 47 urte. Gaur egun Hazparne alboan bizi da, Donamartirin. Ipuinak kontatzea du bizibide eta abenduaren 28an, asteartean, Arrasaten izango dugu. Arratsaldeko seietan 8 urtetik gorako haurrentzat ipuinak kontatzen arituko da, Monterongo Haur Liburutegian.

— Ipuinak kontatzea duzu bizibide?

— Orain dela 17 urte lanbide gisa hartu nuen. Antzerkian eta txotxongiloekin aritu nintzen eta gero ipuinen bidea hartu nuen.

— Nola aukeratzen dituzu jendaurrean kontatzeko ipuinak?

— Euskal mitologia lantzen eta ikertzen dut eta gaurko bizimoduari lotutako ipuinak eta lehengo eta egungo ipuinen arteko zubia egiten dut.

— Beste idazle batzuen ipuinak ere kontatzen dituzu?

— Gehien bat ipuin herrikoiak dira, Euskal Herrikoak. Ipar Ameriketako indianoei eta antzinako herri batzuei hartutako ipuinak ere kontatzen ditut lantzean behin, batez ere haien zibilizazioaren eta gurearen artean loturarik badago. Noizbehinka idatzi ere egiten ditut ipuinak, eta eguneroko gertakizunetan ere oinarritzen gara.

— Kontatu ahala asmatu duzu ipuinik sekula?

— Nire semeei astean bizpahiru aldiz kontatzen dizkiet eta orduan asmatu egiten ditut ipuin motz batzuk.

— Zure langintzatik zer duzu gustuko?

— Ipuinak jaso, prestatu eta sormen



Euskaldunon Egunkaria

lana egitea. Oso polita da bukaeran zer irtengo den jakin gabe lan egitea. Hartzailarekin izaten den zuzeneko harremana ere oso polita da.

— Zein ezaugarri behar ditu ipuin batek ona izateko?

— Barruan ximiku edo kilika egiten duen ipuin hori da ona, eta aldi berean, norbaiti filosofia bat edo esanahi berezi bat igortzen dizkiona.

— Helduentzako ere kontatzen dituzu ipuinak.

— Bai, gehien bat gazte eta helduentzako kontatzen ditut. Haurrentzat noizbehinka baino ez ditut kontatzen.

— Kontaiguzu ipuin bat esaldi bakarrean.

— Behin bazen, eta zoriontsu izan baziren, haur asko izan zituzten.

aste gazte

■ DIRU LAGUNTZAK

• CIOFF-INAEMek Folklore-ari buruzko ikerketa beka antolatuko du. Gaiak, estatu espainiarrako dantza, herri musika eta abestien ingurukoa beharko du izan. Epea: abenduak 30.

• Europako Parlamentuan praktikak egiteko diru laguntzak, ikaslea izanik, titulua lortzeko praktikak egin beharra dutenei zuzenduak. Epea: abenduak 31.

• Museologia bekak, Bilboko Itsas Museoaren eskutik, historian, soziologian edo gizarte antropologian lizentziadunei zuzenduak. Epea: urtarrilak 21.

■ LANA

• Arrasateko Udalak aldi baterako zerbitzuak betetzeko udaltzainen lan poltsa eratu nahi du. Epea: abenduak 30.

• Asteazkenero jasotzen dugu asteburuan hainbat egunkaritan azaltzen diren lanpostu iragarkien bilduma bat. Interesik izanez gero, zatoz bulegora.

■ IKASTAROAK

• Setem Hego Haizeak, Hego-ko herrien errealitateari buruzko mintegia antolatu du. Urtarrilaren 15etik martxoaren 25era bitartean Gasteizen egingo da ikastaroa.

■ LEHIAKETAK

• Emakumeei zuzendutako kontakizun laburren lehiaketa, euskaraz zein gazteleraz, gehienez ere sei orrialdekoak. Epea: urtarrilak 12.

• Pasaia Hiria XII. Olerki lehiaketa, 15 urtetik gorakoei zuzendua, lan original, argitaragabe eta saritugabekoak, euskaraz zein gaztelaniaz, gai librean eta gutxienez 200 bertso luze-raz. Epea: urtarrilak 21.

Argibideak:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 943 77 00 65

“Duela 17 urte hartu nuen ipuin kontalaritza bizibide”

ATB

Programazioa

OSTIRALA, 24

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatza.
Alberto Elorza Zelai
Zabaleko sukaldariak
prestaturiko plater bat.
- 13:45** Santamasak 99.
- 20:00-24:00** Santamasak 99.



Santamasetako azoka.

ASTELEHENA, 27

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatza.
Edurne Izarzelai
Dukiena jatetxeko
sukaldariak prestaturiko
plater bat.
- 13:45** Santamasak 99.
- 20:00/20:30/21:00** Berriak.
- 21:30** Santamasak 99.
- 22:35** Gatza eta Berakatza
(errepika).

ASTEARTEA, 28

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatza.
Edurne Izarzelai
Dukiena jatetxeko
sukaldariak prestaturiko
plater bat.
- 13:45** Santamasak 99.
- 20:00/20:30/21:00** Berriak.
- 21:30** Hamaika Magazin.
Paketegintza, diabetea
eta 2000. urteari buruzko
gorabeherak.



Arantzasu Lagunilla.

- 22:00** Gatza eta Berakatza.
(errepika).

ASTEAZKENA, 29

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatza.
Edurne Izarzelai
Dukiena jatetxeko
sukaldariak prestaturiko
plater bat.
- 13:45** Hamaika Magazin.
Paketegintza, diabetesa
eta 2000 urtea.
- 20:00/20:30/21:00** Berriak.
- 21:30** Aurrez Aurre.



Edurne Mujika.

- 22:00** Gatza eta Berakatza.

OSTEGUNA, 30

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatza.
Edurne Izarzelai
Dukiena jatetxeko
sukaldariak prestaturiko
plater bat.
- 13:45** Santamasak 99.
- 20:00/20:30/21:00** Berriak.
- 21:30** Ekilan: Agustin Markaide
(Eroski).



Alberto Gorritiberea.

- 22:35** Gatza eta Berakatza
(errepika).

Oharra

Asteburuan, Gabonak direla eta, ATBn ez da ohiko programaziorik egongo. Beraz, ez dira errepikatuko astean zehar eskainitako saioak.
Barkatu eragozpenak.

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE



Logopedia eta psikologia
tratamendu kliniko eta
hezitzaileak haur eta
helduentzako.

Erdiko kale, 37 - behea
Tel.: 943 79 79 46 • ARRASATE

Gatza eta Berakatza



Aste honetan Edurne Izarzelai, Dukiena (Aramaio) jate-
txeko sukaldaria izango dugu Gatza eta Berakatza saioan.

Datorren astean

NOIZ

Astelehena 27

Asteartea 28

Asteazkena 29

Osteguna 30

PLATERA

Endibia entsalada.

Alkatxofak, baba txikiak
eta almejak.

Legatz-buztan betea.

Bildots hankatxoak.

Asteburuko kirola

Mondrasport astelehena, 21:30

“Nolako enborra, halako
ezpala”. Zubillagatarren
kasuan ere beste horren-
beste gertatzen da. Manolo
Zubillaga beti ibili izan da
kirol kontuetan sartuta, afi-
zios eta, azken aldi hone-
tan, ofizios ere bai. UDAko
lehendakaritza zela, txi-
rrindularitza, ziklo-krosa,
pilota...

Horregatik, Loiolako
Herri Irratitik deitu zioten-
ean galdetuz ea Mondra-
ren kronikak egin zitzake-
en inorezagutzen zuen, Itxa-
ro alabaren izena eman zuen.
Izan ere, Itxarok aitak bes-
te maite du kirola.

Herri Irratian egin zituen
lehen urratsak. Handik las-
ter, ordea, ATBn hasi zen,
Mondrasport saioan, Jon
Anduezari laguntzen. Aste-
buruetan egiten zuen egin
beharrekoa. Uribesalgorekin
eta Gerardo Mendizabale-
kin ere egin zuen lan. Bai-

ta Iñaki Barrena eta Esti
Loitirekin ere. Berak hartu
zuen, gainera, hiruzpalau
urtez sasoi batean igandee-
tan egiten zen Mondragol
aurkezteko ardura.

Dagoeneko, hori guztia
egin eta gero, bost bat urte
darama Mondrasport saioa
egiten, astelehenero. Bera
dugu ATBko aurkezlerik
beteranoena.

Aurki pare bat urte izan-
go dira ETBra joan zela.
Dagoeneko lau saiotan egin
du lan: *Egunero*, *Jaiak*,
Hamaika Korapilo eta gaur
egun *Lo Que Faltaba* saio-
an.

Hala ere, asteburuetan
eta baita astelehenetan ere,
hona agertzen da, Mon-
drasport prestatzera. Den-
boraldi honetan laguntzai-
le bat du, Xabier Urzelai,
kazetaritza ikasten ari den
mondragoetarra. Hori ere
kirolaz maitemindurik dago.



Itxaro Zubillaga eta Xabier Urzelai.


“EDERTU”

Ile apaindegia • Solariuma • Depilazioa



Jai eta Gabon
zoriontsuak
igaro

San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28 • ARRASATE



Salmenta eta
zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

- Etxe txiki eta merkea salgai Eibarren. Tel.: 943 12 71 04.

3. Errentan emateko

- Ikasleentzako etxebizitza alokatzan da San Andresen. Tel.: 943 77 03 53.

4. Errentan hartzeko

- Bikote batek etxebizitza hartuko luke alokairuan, posible balitz Arrasaten. Tel.: 617 01 47 90.

5. Etxeak osatzeko

- Etxebizitza osatuko nuke Arrasaten otsailetik aurrera. Tel.: 943 61 99 24.

GARAJEAK

7. Saldu

- Garajea salgai, Jose Luis Iñarra pasealekuko 18an, Alcamiran. Tel.: 943 79 23 27. 14:00 - 17:00 eta 20:00etatik aurrera.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

- Lanean diharduen taberna-erregia salgai. Tel.: 943 76 23 08. Manolo.
- Akademia batek eskola partikularrak emateko ikasgela alokatzen du. Tel.: 943 79 18 70.

14. Errentan emateko

- Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m²ko eta bi solairuko lokaia alokagai. Tel.: 943 79 42 65.

LANA

17. Eskaintza

- Esperientziadun emakume eskualduna orduka etxeko lanak egin edo bulegoak garbitzeko prest. Tel.: 943 79 37 68.
- Ospital laguntzaile tituluduna prest pertsona nagusiak eta gaixoak zaindu eta eramateko, auto handi batean. Tel.: 609 77 01 33.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

- Neska gaztea prest umeak zaindu edo zerbitzari lanak egiteko. Tel.: 943 79 68 77.

18. Eskerak

- Pertsona bat behar da sukaldean

lan egiteko. Tel.: 943 79 00 34.

- Umeak zaintzeko neska bat behar da. Tel.: 943 77 17 97.

- Pertsona bat behar da sukaldeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 24 58.

Milurteko berrian BETI SEGURU jarraitzeko



MIKEL LASA, S.A.

Zorionak eta urte berri on!

Otolara Lizentziatua, 5 • MONDRAGOE
Tel.: 943 71 24 54 • Faxa: 943 77 10 74
e-maila: mikellasa@segurcity.net

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

- Marrazki artistikoa eta olio erako eskola partikularrak emango nituzke etxez etxe. Enkarguzko lanak ere egiten ditut. Tel.: 943 79 19 23.

- EGA titulua duen neska diplomatu batek euskarazko eskola partikularrak emango lituzke. Tel.: 943 79 24 51.

- Ingeles filologia ikasten ari den mutilak, inegeleseko eskola partikularrak emango lituzke Mondragoen edo Eskoriatzan. Tel.: 943 71 47 85.

21. Eskerak

- Abenduan zehar alemanierazko eskolak jasoko nituzke. Tel.: 943 79 99 82. Miren.

26. Saldu

- Shin-tzu txakur kumeak salgai. Tel.: 946 84 26 86.

- Spaniel Breton arrazako txakur kumeak salgai. Tel.: 943 79 19 63.

- Lau urteko bi logela oso salgai. Tel.: 616 81 15 96. Jose Luis.

29. Eman

- Ehizako hiru txakurkume emateko. Bi hilabete baino ez dute. Tel.: 943 79 55 07.

31. Galdu

- Katu pertsiar grisa galdu da Musakolan. Tel.: 943 79 97 09.

33. Bestelakoak


- Reiki II, esku ezartze saiokak. Mota guztietako gaixotasunak: estresa, insomnia, buruko minak, beheraldiak. Tel.: 943 79 82 18. 20:00etatik aurrera.

HARREMANAK


35. Kontaktuak

- Bartzelonako telekomunikazio enpresa garrantzitsuak inbertsorea behar du (10 milioitzi gora) Tel.: 943 22 51 61. Iñaki.

Oraindik ez duzu aukeratu Gabonetako oparia?



Guk garbi dugu. Aurten zerbait berezia oparituko dizugu:
osasuna, edertasuna eta plazerra



Plazerrezko opari-bonoa

- Hidromasajea.
- Lokatzak edo presoterapia.
- Masaje lasaigarria.

Eskaintza berezia: Guztia 6.500 pta!!

Produktu eta zerbituzetako opari-bonoa

- Depilazioak.
 - Kalitate goreneko produktu kosmetikoak.
 - Azal garbiketak.
 - Gorputz eta aurpegi tratamenduak.
- %10 beherapena zerbitzu eta produktu bakoitzean!!



LIRAIN

ESTETIKA-ZENTRUA
EMAKUME-GIMNASIOA

Bixente Ferrer, 1 • ARRASATE • Tel./Faxa: 943 79 52 17

Solarium eskaintza *
10 saio + 1 doan = 6.500 pta

* Eskaintza otsailak 28a arte izango da baliagarria



Txoronpio eta Txorontzia, Olentzeroren bi laguntzaileak, 1980. urte-tik ibiltzen dira Mondragoen neska-mutikoen Olentzerori egiten dizkieten eskariak batzen.

1988. urtean ere halaxe egin zuten. Ordukoa da argazki hau. San Andres auzoan harrapatu zituen argazkilariak Olentzeroren bi mezulariak goxokiak banatu eta gutunak jasotzen. Ohi duten moduan, eguerdi aldean ekin zioten auzoz auzoko ibilbideari, Olen-

tzero datorrenerako dena ger-tu izateko.

Beti egiten dute horrela, eta urtero-urtero, batez beste, 1.000 gutun inguru jasotzen dute Olentzeroren bi laguntzaile hauek. Eta gutunak ez dira umeenak bakarrik izaten, ez pentsa. Nagusi batek baino

gehiagok idazten dio gure ikazkinari. Olentzerok jasotzen dituen gutunetatik %99 euskaraz idatzita egoten dira.

*Berriemailea
eta argazkia:
Ino Calleja*



Jovi

10.000 koloretako menua aukeran

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex.
Neurriko felpudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak. Kortxoak. Moketa losetan.
Erretxina autonibelatzailea duten lurzorruak.

Pintura ekologikoak

Ferrerias, 35 ARRASATE Tel.: 943 79 12 87

Eskerrik asko,
beste behin,
dakigun guztia
irakasten utzi diguzulako.



Gabon zoriontsuak

Oinarrizko ofimatika windows inguruan
Diseinu eta komunikazio grafikoa
Fotokonpoizioa
Komunikazio eta sare lokalak
Programazio informatika
Kontabilitate eta komertzial gestio mekanizatua
Zerga gestioa PYMES-etan
Giza errekurtsoen administrazioa
Mekanografia
Laguntasan klaseak
Planoen interpretazioa
Kalitatearen gestioa
Internet
Administrazio laguntzailea
Hizkuntzak (multimedia sistema)
Ekipo informatikoen mantendu eta erreparazioa
Musika informatika (Midi sistema)

AKADEMIA

BASTIDA

INEM-ek HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

Araba Etorbidea, 3 - 1^a
20500 Arrasate-Mondragón
Tel.: 943 79 35 33
Fax: 943 79 06 28
E-mail: bastida@tsai.es



Garai berrietan ere...

Txukuntasuna



Argitasuna



Erosotasuna



Osotasuna



Lasaitasuna



hemen aurkituko duzu

a.eme. interiores. • a.eme. sukaldeak • centro hogar muebles • sofa leku

grupo



Amueblador
Mondragones